

Berrikuntza KSlekin eta haien barruan

2. arlo tematikoa:

Testuingurua

2023ko ekainetik azarora bitarte lantalde nagusi batek garatu zuen AT arlo tematikoa, non parte-hartzaileek lan-ildoak definitu eta beren esperientzia partekatu baitzuten CWF24 foro berritzaile eta emankor bat prestatzeko. Hori horrela, honako hauek osatu zuten lantalde nagusia 2.AT honetan:

- **Erakunde koordinatzailea:** Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia, eta Tecnalia Ikerketa eta Garapen Zentroa.
 - Gotzon Bernaola, Innobasque-ko enpresa-berrikuntzako koordinatzaile nagusia
 - Jorge García, Tecnaliako proiektuetako zuzendaria
 - Ruben Otero, Tecnaliako eServices zerbitzuen negozio-arloko zuzendaria
- **Hizlari nagusia:** Jenny Kornmacher, Kultura eta Sormen Industrietako sustatzailea eta Skåne Erregioko Nazioarteko Harremanen arduraduna.
- **2. ATko hautatutako kasuak:**
 - Ristband - Anne McKinnon (Irlanda)
 - Mediar - BlackRhino VR - Brian Afande (Kenya)
 - Resortecs - María Duque (Belgika)
 - Autofabricantes - Lidia Contreras (Espainia)
 - Panodisea - Alexandre Leforestier (Frantzia)
 - JetClay - Javier Pérez Contonente «Japi» (Espainia)
 - Viroo: la XR es fácil - David Moreno (Euskadi)

Aurreko atalean azaldutako metodologiari edo prozesuari jarraikiz, zenbait urrats eman zituen taldeak. Lehenik, taldeak taxuzko eztabaida bat izan zuen 2.AT honen azken erronkak kontrastatzeko eta hautatzeko. Hori horrela, 2. erronkan amaierako izenburua zabaldu egin zen beste gai batzuk barnean hartu eta horri esker inpaktu soziala ere kontuan hartzeko, eta ez soilik ingurumen-arlokoa. Hasiera batean, naturan, biodiseinuan eta biomaterialetan oinarritutako soluzioak azpimarratu ziren, baina pentsatu zen garrantzitsua zela portaera-aldaketei buruz gogoeta egitea KSlek eragin dezaketen balizko inpaktu soziala ere ikusarazteko.

- 1. erronka.** Teknologia disruptiboak, eta haiek kulturen eta sormenean duten eragina
- 2. erronka.** Kultura- eta sormen-industriak etorkizun ekologiko eta jasangarri baten eta inpaktu sozialaren katalizatzaile gisa.

1. erronkak azpimarratu zuen etorkizuneko esperientziak edo aurkeztu beharreko erabilera-kasuak bilatzeko garaian garrantzitsua dela baterako sorkuntza ahalbidetzen duten erabiltzaile anitzeko murgiltze-esperientziak kontuan hartzea, baita erregulazioarekin eta mikrorregaliek lotutako gaiak ere.

2. AT: Berrikuntza KSlekin eta haien barruan

Erronkak definitzeaz gain, taldeko kideek amaierako esperientziak hautatzeko irizpideak ere definitu zituzten eta, ondoren, ikerketa bat egin zuten erronkak aztertzen zituzten eta adostutako irizpideak betetzen zituzten nazioarteko esperientziak identifikatzeko, esparru geografiko albait zabalena barnean hartzea azpimarratuz. AT honen emaitza gisa, trantsizio digital jasangarriko irizpideen sustapena detektatu zen, eta gainerako talde guztiak ere sartu ziren arloan.

2. ATak 20 proiektu proposamen jaso zituen guztira. Ondoren, proiektuak ebaluatu zituzten kideek (beraiek zuzenean parte hartu ez zuten proiektuak, objektibotasun handiagoa lortzeko), ebaluazio-matrizearen tresna erabiliz. Hobekien balioetsitako proiektuak eta ordezkioak lantalde guztiarekin partekatu ziren, eta akordio batera iritsi zen. Amaierako hautaketa-prozesuaren zati gisa, kontuan hartu nahi izan zen elkar aberastea edo sektoreen arteko lankidetzatza ote zegoen, horrek guztiak berrikuntza eta efizientzia hobetzera nola eraman dezakeen nabarmentzeko. Gainera, talde koordinatzaileak, lider nagusiarekin batera, zerrendan agertzen ez zen proiektu bat hautatzea erabaki zuen irizpide geografikoaren mesedetan, eta horrek bere garaian detektatu zen proiektu oso berritzaile bat ekarri zuen azkenean.

Horren emaitza gisa, nazioarteko sei proiektu jarri dira martxan / osatu dira, gehi Euskadiko beste bat, Euskadi eskualde anfitrioiaren zenez. Lau proiektuak lehenengo erronka aztertzen dute eta hiruk, aldiz, bigarrena. Azkenik, bilera birtual bat egin zen eta bertan ordezkariak beren proiektuak aurkeztu zituzten lantaldeari, ekitaldira pertsonalki bertaratzeko zuten borondatea berretsiz, baita kolaboratzeko, haztekoa eta sinergiak sortzeko ere, inguruabar horiek izanik CWF24 foroaren antolakuntzaren emaitza nagusiak.

Berrikuntza KSlekin eta haien barruan gaiari buruzko 2. ATaren esperotako emaitzei dagokienez, honela definitu ziren:

KSISen sektoreak dituen premiak identifikatzea rol zabalago eta esanguratsuago bat lortzeko berrikuntzari begira trantsizio sozial, ekologiko eta digital bat lortzeko honako puntu hauei dagokienez:

- Ezagutzen eta gaitasunen garapena
- Finantzaketa-sistemak
- Politika konkretuak
- Esparru juridikoak
- Ekosistemak



1. Esperotako 1. emaitza

Ezagutzen eta gaitasunen garapena:

- Europako KSI askok ez dituzte beharrezko gaitasun eta eskumenak izaten trantsizio digitalak eskaintzen dituen aukera ugariak erabat aprobetxatzeko eta eragiten dituen oztopoak saihesteko. Zein da sektore-arrakala eta nola ekin ahal zaio?

- **Trantsizio ekologikoa:** Prestakuntza-aukera berriak eskaintzea herritar gazteei sormen-industrietan, baita hezkuntza ingurumen-jasangarritasunean ere.

- **Etengabeko ikaskuntza:** Perfekzionatzeko eta birziklatzeko sistemak hobetzea helduen hezkuntzan.

1. taldea

Egungo egoeraren azterketa

Alderdi positiboak:

- KSlen barne-abilezien artean daude sormena, malgutasuna, erresilientzia eta zeharkakotasuna.
- Ezagutza-sinergiak helburu erkide batekin.
- Tokiko premia, soluzio globala.
- Ezagutzen trukeak emaitzen hobekuntza dakar.
- Trantsizio digitala. Adimen artifizialean, errealitate birtualean, eta abarretan, izandako aurrerapausoak lehen pentsaezinak ziren posibilitateak sortzen dituzte: bezeroaren ezagutza, eduki-produkzioa, eta abar.
- Loturak beste agente batzuekin.
- Aukerak sortzen ari diren Europako erduei erreparatu behar zaie eta haiek kopiatu.
- Erabiltzailea prozesuaren erdian kokatzeko gaitasuna.
- Zenbait pauso ematen ari gara, eta biltzar hau dugu horren adierazgarri.
- Aukera handiak.

Alderdi negatiboak:

- Abilezia teknikoak.
- Aukerak eta jarraipena falta dira emaitza onak lortzen dituztenentzat.
- Gure ingurune hurbilenaren inplikazioa eta laguntza falta da, baita administrazioarena eta erakunde publikoena ere.
- Partekatutako ezagutza «lapurtzeko» arriskua.

- Teknologiaren bizkortasunak ezagutzen maila handia eskatzen du. Horren emaitza gisa, beldur zaie posibilitate berriei (adibidez, adimen artifiziala).
- Baliabide eskasegiak: Ez daukate departamentu informatikorik eta askotariko zereginak egin behar dituzte guztia kontrolatzeko.
- Erreza da ezagutzak partekatzea, baina zaila praktikan jartzea.
- Agenteen arteko lankidetzarik eza.
- Enpresa handiak (Google, Meta).
- Luzeak eta neketsuak izan ohi dira prozesuak.
- Espezializazio-maila handia eskatzen da.

Etorkizunerako proposamenak

Proposamen guztiak:

- Kode irekiko askotariko adimen artifizialak.
- Trantsizio ekologikorako ekimenak babestea, hala nola «Trimtecs» ekimena.
- Diziplina anitzeko proiektuak sustatzea eta finantzatzea.
- Prestakuntza balioanitzia.
- Abilezia hibridoak sustatzea (kreatiboak eta teknologikoak).
- Erreminten eta ezagutzen gordailu irekiak.
- Prestakuntza espezifikoko aukerak (erremintak, aplikazioak, eta abar).
- Azeleragailuak, inkubagailuak, berrikuntza, finantzaketa, eta abar.
- Enpresen eta hezkuntza-erakundeen artean proiektuak sortzera bideratutako lankidetzaprogramak hastea.
- Teknologiaren erabilerak prestakuntza kritikoa eskatzen du. Kutxa beltzak ireki behar dira.
- Diziplina arteko languneak sortzea benetakoa eta konkretua den helburu batekin. Ikaskuntzan parte-hartzea.
- Hezkuntza kreatibo eta kooperatiboa sustatzea. Ez hain lehiakorra.
- Sektoreen arabera bereizitako fiskalitatea.

Proposamen NAGUSIAK

1. **Sarbide ekonomiko goiztiar baterako laguntza:** Enpresei hasieratik erraztea KSlen proiektuen garapena. Ideia gehienek eta sormenaren zatirik handienak ez dute diru-sarrerarik sortzen berrikuntzaren edo sormenaren lehenengo faseetan. Horrenbestez, enpresa sortu berrientzat zaila da sormenean inbertitzea, denbora gutxian diru-kopuru handia behar dutelako. Uste dugu inbertsio ekonomikoa falta dela enpresa horientzat prozesu hau sortzeko eta berritzaileak izateko beren hasierako garapen-faseetan daudenean.
2. **Diziplina anitzeko ikuspegia:** Hezkuntzak (prestakuntza) zein enpresek (garapena) diziplina anitzeko kudeaketa eskatzen dute. Trantsizio ekologikoan zein digitalean mundu hobea egiteko ikuspegi desberdinak, ikuspuntu desberdinak eta hezkuntza-desberdinak dituzten pertsonak biltzea.
3. **Teknologia faktore bideratzaile gisa:** Erreminta gisa erabili behar da teknologia, ez sormenaren ordezkotzat gisa. Joera garrantzitsu bihurtu da Adimen Artifiziala. Ez gara etorkizunerako prestatuta egongo teknologia gure sormena handitzeko soilik erabiltzen badugu. Sormena duten pertsonak behar ditugu, baina ezagutza teknologikoak ere behar ditugu elkarrekin lan egin dezaten.

2. taldea

Egungo egoeraren azterketa

Alderdi positiboak:

- EITa sektoreko katalizatzaile gisa. Kontzientziazioa.
- KSlen adibide egokiak. Inspirazioa. Kontzientzia sortzea.
- Talde-lana.
- Eskuragarri dauden doako eduki asko daude.
- Nazioartekoa. Espezializazioa. Diziplina-zeharkakoa.
- Ikaskuntza bizkorrago baterako aukerak eskaintzen ditu Adimen Artifizialak.
- Oso ondo egokitzen zaigu istorioak kontatzen eta arazoak konpontzea.
- Espiritu ekintzailea teknologiarekin eta jasangarritasunarekin lotutako ekimen disruptiboak martxan jartzeko.
- KSlen jasangarritasun-alderdiei buruzko kontzientziazioa.
- Ikasteko gogoia.
- Larrialdi-sentsazio bat dago (sektore jakin batzuetan behintzat, hala nola modan).

Alderdi negatiboak:

- Trantsizio ekologikoa ez da behar bezala aztertzen hezkuntza-sisteman.
- KSlen zatikatzea sektoreen, proiektuen eta ezagutzen arabera.
- Esparru bakoitzak abilezien multzo desberdin bat eskatzen du KSletarako.
- Agendako lider bakar bat ere ez; trantsizio ekologikoan «interesa duten alderdiak».
- Gobernuak urrats txikiak egiten ari dira trantsizio ekologikorantz (zenbait herrialdetan).
- Itxiegia.
- Aukerarik eza helduen hezkuntzarako.
- Testuinguru txikia/indibiduala.
- Negozio jasangarri eta alternatiboen eredurik eza.
- Ikaskuntza pasiboko metodoak erabiltzen dira.
- Isolamendua. Batzuek besteengandik ikasteko sareak.
- Teknologiararen profesionalen eta pertsona kreatiboen arteko baterako ekintza prozesuak erraztu behar dira.
- KSletako profesionalak ez dira beste «hizkuntza batzuetan» konektatzeko eta saltzeko gai.
- Autoestimua. Emozioak. Ezagutzak.

Etorkizunerako proposamenak:

Proposamen guztiak:

- Nazioartean espezializatutako azpisektoreen arteko komunikazioa.

- P2P sareak sortzea nazioko mugez haratago.
- Nahitaezko trantsizio-prestakuntza bat sortzea.
- Aldaketaren agenteak: KSlek katalizatzaile-lanak egiten dituzte ohitura eta produktu ekologikoen trantsiziorantz.
- Hezkuntza-programetan parte hartzea.
- Parte-hartzean oinarritutako diseinua. Alderdi interesdunekin eta haientzat garatzea.
- KSlen birdefinizioa: Talentu-siloak haustea. Sormena.
- Adimen Artifiziala laguntzaile kreatibo gisa.
- KSlek fase goiztiar batean kotizatzen dute burtsan, enpresa berritzaile batek jasotzen duen tratua bera jasotzeko.
- Laguntza publiko eta pribatua berrikuntzarekin eta negozio-eredu alternatiboekin lotutako enpresa-ekimenei.
- Mundu akademikoaren industriarako hurbilketa, horri esker finantzaketa lortzeko.
- Erantzukizun-kideak. Ikasten jarraitzea animatzea.

Proposamen NAGUSIAK

- 1. Diziplinartekotasuna KSletan eta beste sektore batzuetan:** Diziplinartekotasuna sustatu behar da industriek betiere batzuek besteengandik ikasi dezatela ahalbidetuz. Hainbat modutan lortu ahalko litzateke hori:
 - a. Elkarren arteko unibertsitate bat sortzen saiatu ahalko ginatekeen non sektore guztiek biltzeko eta beren ezagutzak partekatzeke aukera izango luketen. Tailerrak batera egin ahalko lirateke.
 - b. Industrien arteko Erasmus programaren antzeko bat sortu ahalko genukeen, non beste sektore bateko enpresa batekin lan egingo duzun hilabete batez eta harengandik ikasiko duzun.
 - c. Elkar aberasteko eta baterako sorkuntzako prozesuak probatzea ezagutzak transferitzeko teknologiaren eta jasagarritasunaren esparruetan.
 - d. Ezagutzen eta gaitasunen diziplina arteko trukea sustatzea.
 - e. Disziplina anitzeko talde bat sortzea. Talde propioa mundu osoan aurkitzea.
- 2. Lineako ezagutza-plataforma KSlen barruan:** Foro bat izango litzateke, trantsizio ekologiko edo digital hori industrien barruan nola egiteari buruzko ikasgaiak trukatzeko.
 - a. Informazio-bilketa.
 - b. Sektore arteko ezagutzak trukatzea KSlen akademian.
- 3. Istorioak kontatzearen indarra:** Garrantzitsua da istorioak partekatzea, eta ez soilik arrakasta duten istorioak.
 - a. KSlen istorioak eta arrakasta-kasuak partekatzen direla bermatzea erregioan eta nazioartean errepikatu daitezen.
 - b. Proiektuen gorabeherei buruz hitz egiten da.



2. Esperotako 2. emaitza

Finantzaketa-sistemak

- Nola finantzatu dugu berrikuntza? Arriskuak partekatzen dira beste agente batzuekin? Nola bermatzen da finantzaketa publikoaren inpaktua? Eta zertan da KSSletako inbertsio soziala?
- Hasierako kapitala bilatzeko formula berriak?
- Ezagutzen duzu inbertsioak partekatzea ahalbidetzen duen plataformarik edo sarerik?

3. taldea

Egungo egoeraren azterketa

Alderdi positiboak:

- Funts publikoen erabilera etikoa. Helburu sozialak:
- Badira finantzaketarik gabe existitzen diren adibide positibo asko.
- Proiektu jasangarriak sustatzea.
- EBko programetarako bonuak. Kontsultari bat kontratatzea EBrako proposamena prestatzen lagundu dezan.

2. AT: Berrikuntza KSlekin eta haien barruan

- Talde transdiziplinarrak. Mota guztietako sektore, erakunde eta agenteak.
- Probatzen, huts egiten eta berriz ere probatzen gauzatzen dute berrikuntza KSlek.
- EB finantzaketa-aukerak irekitzen ari da KSlen sektorean berritzeko (zaila izaten jarraitzen badu ere).
- Ekosistemen sustapena (egiazko ekosistemak).
- Inbertsio pribatua.
- EITaren KSI.
- Erasmus+ (KAZ) lankidetzeta-proiektuak.
- Creative Europe programa.
- Horizon Europe (2. klusterra, EIC, eta abar).

Alderdi negatiboak:

- Berrikuntzaren finantzaketa tradizionala ez da KSletara bideratuta egoten.
- Ohikoa izaten da KSletako agenteek beren burua enpresari gisa ez ikustea.
- Berrikuntzaren finantzaketa ez dago KSlei bideratuta, ezta haien egiturari ere.
- KSletako alderdi interesdunek ez dute beti berrikuntzaren kontzeptua erabiltzen, eta kontzeptuarekin ere ez dute pentsatzen.
- Ikerketa eta garapena ez dira existitzen egitura eta enpresa txikietan.
- Hazkundera da berrikuntzaren helburua. Ezin dugu gehiago hazten jarraitu (balio berriak behar ditugu)
- Adierazle garbiak: generoa, tokiko agenteei egindako ekarpena.
- Sektoreak ez du lekurik edo plataformarik bertan informazioa lortzeko KSletarako eskuragarri duen finantzaketa mota guztiei buruz.
- Enpresa txikietan funtsak lortzeko zailtasuna.

Etorkizunerako proposamenak

Proposamen guztiak:

- Neurrirako finantzaketa: Esparru sinpleagoak gomendatzen dira, enpresa txikiei egokituagoak, burokrasia gutxiago eta eskatzaileak bideratzeko arauak.
- Komunikazioa: idazkuntza desberdina, KSlei bideratuagoa, EBren/ Estatuaren / erregioaren informazio espezifikagoa.
- Berrikuntzarako balio berriak (ez soilik hazkunderako)
- Gaitasunak garatzea. Sareak eta kontaktua inbertitzaileekin batera garatzea, finantzaketa eskatzen ikastea, inbertitzaileekin nola negoziatu behar den, esperientzia partzuergoekin eta gaitasun ekintzaileak.

Proposamen NAGUSIAK

1. **Neurrirako finantzaketa:** EBren gaur egungo funtsak baino finantzaketa-esparru sinpleagoak proposatzen ditugu. Onuragarria litzateke enpresen aldekoagoak izatea, burokrasia gutxiagorekin eta eskaera-prozesu sinpleagoarekin.
 - a. Esparru sinpleagoak.
 - b. Enpresa txikietara ere egokitutakoak.

- c. Burokrazia gutxiago.
 - d. Eskatzaileak bideratzeko arauak.
2. **Komunikazioa:** Hiztegia edo komunikazioaren idazkuntza gehiago zentratu behar dira KSlen hizkuntzan.
- a. Idazkuntza desberdina (KSlek erabilitako hizkuntza).
 - b. KSlei bideratuagoa.
 - c. Informazio espezifikagoa komunitatean, Estatuan eta erregioan.
 - d. Sektoreari eskuragarri dauden finantzaketa-aukera guztiei buruzko informazioa ematen dion plataforma bat.
3. **Gaitasunak garatzea:**
- a. Sektorea indartzea.
 - b. Sarea/kontaktua inbertitzaileekin.
 - c. Finantzaketa eskatzen ikastea.
 - d. Negoziaketak gure proiektuetan inbertitzeko interesa duten inbertitzaileekin.
 - e. Esperientzia partzuergoekin.
 - f. Abilezia ekintzaileak.

4. taldea

Egungo egoeraren azterketa

Alderdi positiboak:

- Elkarrekin lehentasuna izan ohi dute finantzaketa-irizpideetan.
- Uneko gaia KSletan, edo gutxienez EBko finantza-programetan barne hartutakoa.
- Funtz-dibertsitatea: azpiegiturak, berrikuntza, abileziak, inbertsioa, kapitala.
- Sortzaileak gero eta gehiago jabetzen dira finantzaketa-aukerez eta bilatu egiten dituzte.
- Parte-hartzean oinarritutako finantzaketa aukera ona da.
- Enpresari beren eskueran dituzten aukera guztiak ulertzen laguntzeko ekimenak.
- KSlen barruan hazkundera dauden industriei lotutako funtsak.
- Finantzaketa-maila asko daude: Estatuak, erregioak eta Europa.
- EBren finantzaketak sortzaile berri eta irekiei laguntzen die.
- Finantzaketa-sisteman kopurua hazten ari da.

Alderdi negatiboak:

- Enpresa txikiei oso zaila egiten zaie EBren proposamenetan parte hartzea.
- Arituak falta dira gai konkretu honetan.
- EBren finantzaketa. Ez dago diru nahikorik proiektuak osatzeko.
- Erronda pribatuak oso lehiakorrik dira eta zenbait ideia on sorrarazi dituzte.
- Sektore pribatuak funtsetarako sarbide mugatua izan ahalko luke.
- Konektibitatea falta da elkarketa posibleen artean.
- Burokrazia gehiegi.
- Zaila da informazio guztia leku bakar batean aurkitzea.
- Informaziorik eza.
- Prozesu neketsu eta zailak.
- Enpresa txikiek aukerak ezagutu behar dituzte ekosistema osoan.
- Aholkularitza/laguntza eskura izatea funtsak identifikatzen badira.

- Parte-hartzean oinarritako finantzaketa prestatua; aldez aurreko inbertsio handia.

Etorkizunerako proposamenak

Proposamen guztiak:

- Egungo laguntza-neurri guztiek (aurkezpenak/bilera indibidualak) ikusgarriagoak izan behar dute.
- Enpresei kanpo-baliabide espezifikoak eta dirua ematea EBren programetan sartu daitezen (proposamenak prestatzeko finantzaketa-programa)
- Proiektu-proposamenen plataforma bat balizko bazkideen bilera errazteko.
- KSletako inbertitzaileentzat espezifikoki diseinatutako arrisku-kapitaleko plataforma bat.
- Etorkizuneko KSletarako prestakuntza-programa bat (lizitazio-idazleak).
- KSletako mentore eta enbaxadoreen eskuragarritasuna.
- Informazio guztia «finantzaketa-bilatzaile» modura biltzen duen URL bat sortzea.
- Informazio-saioak antolatzea finantzaketa-bilatzen duen enpresa edo erakunde bakoitzeko ordezkariekin.
- Finantzaketa hibridoa (hodeian, publikoa, pribatua)
- Proposamenak prestatzeko orientabidea
- Finantzaketa publikorako sarbide errazagoa. Kotsultari publiko bat sortzea.

Proposamen NAGUSIAK

- 1. Prestakuntza-ikastaroak:** Burokrazia eta konplexutasuna direla-eta, zaila da funtsak lortzea. Ikastaroak antolatu ahalko lirateke enpresentzat, finantzaketa bilatu eta eskatzeko behar duten prestakuntza emateko (erregioetako gobernuek, udalek edo enpresa pribatuek antolatutakoak).
- 2. Etorkizuneko ministerioa:** Beste arazo bat zera da, finantzaketa-aukerak iragartzen direnean haiek lortzeko lehiatzen diren pertsonak edo proiektuak daudela. Proiektu merezidun batzuk kanpoan geratzea eragiten du horrek. Finantzatutakoak izatea merezi duten proiektuak identifikatzen saiatuko da ministerio hau, «proiektuehiztarien» zuzendaritzapean. Publikoak edo pribatuak izan daitezke.
- 3. Agente polinizatzaileak elkarketa egokiak lortzeko:** Elkarketa posibleak bilatzea hainbat sektoretan.



3. Esperotako 3. emaitza

Politika konkretuak:

- Muga geografikoen eta sektorialen arteko alde handiak aztertu ditzaketen alderdiak.
- Baita KSletako sektoreen barruko aldeak ere, sektore arteko gaiekin batera.
- KSlen berrikuntza-gaitasuna indartzera bideratutako ekintzak.

5. taldea

Egungo egoeraren azterketa

Alderdi positiboak:

- Indarra: Sektore arteko ikuspuntu bat.
- Europako Batzordeak bultzatutako ikuspegi europar sendo bat.
- Hainbat erregio indartsu daude EBn, Euskadi esaterako.

2. AT: Berrikuntza KSlekin eta haien barruan

- Erregioen nortasuna.
- Politika publikoak inklusiboak izan daitezela lortzea.
- EBko DBEOaren politiketan inspiratzen da Estatu Batuetako senatua.
- Sormena inspiratzea gizartearen erronkak bideratzeko.
- Europako erregelamendua.
- EBren finantzaketa berria.
- Ekonomikoki independenteak izango diren sormen-proiektuak/kultura-proiektuak sustatzea.
- Ekintzailtza sustatzen duen politika bat.
- Zaila da funtsak biltzea eta inbertsioak lortzea.

Alderdi negatiboak:

- Erregioen nortasuna.
- GAFAMen inpaktua.
- Pertsonen erabileren atzean.
- Politika publikoak inklusiboak izan daitezela lortzea.
- Berrikuntza inklusiborako guneak.
- Lehiakortasunik eza.
- Teknologiaren inpaktu psikologikoa #garuna #adikzioa.
- Gobernu-araudiek enpresen berrikuntza mugatzen dute.
- Ez da erraza EBren mailan sartzea.
- EBren politika berriak transkribatzeko garaia da; 27 nazio.

Etorkizunerako proposamenak

Proposamen guztiak:

- Mugarik gabeko kontinente bat. Sormen- eta kultura-industriak sustatzeko eta finantzatzeko politika berri bat.
- KSlen inpaktua (soziala, ekonomikoa, ingurumen-arlokoa) onartzea.
- EBn zentratutako erreminten erabilera sustatzea.
- Politikak, finantzaketa eta pertsonentzako aukerak ulertzeko metodologia simple bat garatzea.
- Ekologia. Belaunaldi-dibertsitatea.
- Tokiko sormen-edukiak (EB) partekatzeko plataforma bat: liburuak, musika, artea, proiektuak.
- "Europar fabrikatuari" lehentasuna ematea.
- Edukiei oztopo gehiago ez jartzea haien izaera digitalaren ondorioz.
- Giro oneko komunitatea.
- Trantsizio digitala naturarekiko, gizateriarekiko eta dibertsitatearekiko.
- «Far West basatiaren» amaiera web-munduan (enpresa teknologiko handien lidergoa).

Proposamen NAGUSIAK

1. **Metodologia sinpleagoa:** Politikak, finantzaketa eta aukerak garatzeko erabiltzen erraza den metodologia.
2. **Plataforma:** Tokiko sormen-edukiak (EB) partekatzeko plataforma bat. Liburuak, musika, artea, proiektuak.
3. **KSlen onespena:** KSlen eragina (gizartea, ekonomia, ingurumena) onartzea.

6. taldea

Egungo egoeraren azterketa

Alderdi positiboak:

- Kulturaren eta sormenaren EITa.
- Horizon Europe programa.
- Kulturaren eta sormenaren garrantziari buruzko etengabeko eztabaidak.
- Guzientzat egokia den esparru bat.
- Normalizatua edo malgua beharrezkoa denean.

Alderdi negatiboak:

- Kolaborazio konkretu batez haratago doan laguntzarik eza.
- Erakundearen tamainak hitza ematen dio.
- Zenbaiti soilik aplikatzen zaie hori eta abantaila batzuk ematen dizkie.
- Malgutasunik eza; politika batzuk zaharkituta daude.
- Katearen goiko aldean mantentzen den finantzaketa.
- Haiekiko mendetasuna.
- Ez daude beti lerrokatuta erregioari, Estatuari eta nazioarteari dagokionez, adibidez, finantzaketa eta elkarketa babestuz.

Etorkizunerako proposamenak

Proposamen guztiak:

- Kolaborazio eta abilezia gehiago.
- Abilezien garapena, KSlen sareak eta toki jakin bateko elkarketak sustatzen dituen politika bat.
- Sormen-industrian kolaboratzen duten eta ikaskuntzak partekatzen dituzten elkarketa gehiago.
- Sormen-industriari malgutasun gehiago ematea (autonomoak)
- Orientabidea eta laguntza profesionala.

Proposamen NAGUSIAK

1. **Kolaborazio eta abilezia gehiago:** Elkarketa beharrezkoa dela konturatu ginen, eta bikaina izango litzatekeela erregio bakoitzak bere politikan sartzea. Elkarketa horiek betiere kultura- eta sormen-industriak benetan federatu egiten dituzte dirulaguntzak lortzeaz gain hobetzeko eta konektatzeko aukerak ere izan ditzaten. Artistak kreatiboak izan daitezke, baina ezin dugu espero dena beren kabuz lortu dezatela.
 - a. Abilezien garapena, KSlen sareak eta toki bateko elkarketak sustatzen dituen politika bat.
 - b. Sormen-industrian kolaboratzen duten eta ikaskuntzak partekatzen dituzten elkarketa gehiago.

2. **Malgutasuna:** Sormen-industriari malgutasun gehiago ematea (autonomoak). Zenbaitetan zaila da finantzaketa lortzea erakundeak handiagoa izan behar duela adierazteagatik soilik. Dena den, hori aldrebesa da nolabait, autonomo bat kreatiboa izateko gai baita, baina ezin du dirulaguntza lortu. Malguak izan behar dugu puntu honetan, ezen pertsona hori lana egiteko gai bada, zergatik ez lituzke funtsak jaso beharko?
3. **Orientabidea eta laguntza profesionala:** Beren ikasketak amaitu ondoren, laguntzarik eza nabaritzen dute pertsona askok. Norbait izan behar dute sortzaile gisa izango duten karrera profesionala nola jarraitu behar duten aholkatu diezaien, jarraitu behar duten prozesu motari buruz aholkatuko diena. Oso mesedegarria izango litzateke unibertsitate arloan laguntza-sistemaren bat izatea; sortzaile gisa egiten duen lanarekin norbait gosez hil daitekeela esan ahalko zaie, baina baita arrakasta handi bat lortu dezakeela ere.



4. Esperotako 4. emaitza

Esparru juridikoak:

- KSISen digitalizazioaren dimentsio «soziala», pribatutasuna eta datuen babesa, eta DBEO.
- Adimen Artifiziala eta makrodatuak, eta giza eskubideetan duten inpaktu sozial eta etikoa.
- KSISen rola EBren Itun Berdean. Zer neurri hartu behar dituzte gobernu nazionalak trantsizio sozial, ekologiko eta digital bat lortzeko?

7. taldea

Egungo egoeraren azterketa

Alderdi positiboak:

- DBEOaren esparru sendoa.
- Adimen artifizialaren erabilerari buruzko eztabaida etikoa. Esparru desorekatuak.
- Kode irekiko eredu gehiagotarako trantsizioa.
- Azken urteetan enpresa jasangarri gehiago egon dira.

Alderdi negatiboak:

- DBEO: desabantaila ETEentzat (enpresa txiki eta ertainak) haien politika zorrotzen ondorioz.
- Adimen artifiziala eta makrodatuak. Gardentasunik eza datuen erabileran.
- Mugaz haraindiko araudirik eza.
- Esparru juridikoaren hartze-prozesua mantsoa da.
- Adimen Artifizialari buruzko erabakiei lotutako dilema etikoak.
- Ez dago esparrurik jabetza intelektual immateriala balioesteko.

Etorkizunerako proposamenak

Proposamen guztiak:

- Elkarreragingarritasuneko esparru juridiko bat. Esparru juridiko global bat herrialde eta jurisdikzio guztietan harmonizatuta egongo den plataforma digital baten inguruan integratzea.
- Esparru juridiko xehatuago bat edo erabiltzaileen datuak erabiliz Adimen Artifiziala nola entrenatu daitezkeen erakusten duen azalpen bat. DBEOan adierazten da nola erabiltzen diren datuak erabiltzaile bat ezabatu ondoren, baina ez da azaltzen zer gertatuko den eredu bat datu horiekin entrenatu badu, ezta erabiltzailea ezabatu ondoren zer gertatuko den ere. Gaur egun, erakundearen betebeharrak etikoaren mende dago, baina esparru juridikorik ez izate hori erraz saihestu daiteke.
- Kode irekia sustatu eta zaindu egin behar da.
- Esparru bat sortzea jabetza intelektual immaterialerako (beste balio batzuk sartzea)

Proposamen NAGUSIAK

1. **Elkarreragingarritasuneko esparru juridiko bat:** Herrialde eta jurisdikzio guztietan harmonizatuta egongo den plataforma digitalentzako esparru juridiko bat integratzea.
2. **Esparru juridikoa:** DBEOak zehazten du nola ezabatu edo erabili daitezkeen erabiltzaileen datu pertsonalak, baina ez du azaltzen zer gertatuko den eredu bat datuekin entrenatzen bada, ezta erabiltzailea ezabatu ondoren zer gertatuko den ere. Gaur egun, enpresaren betebeharrak etikoaren mende dago erabakia, eta datuak anonimizatzeke edo pseudonimizatzeke erabiltzen duen moduaren mende.
3. **Kode irekia sustatzea eta zaintzea:** Kode irekia zaintzea eta esparru juridikorik gabe sustatzea.



5. Esperotako 5. emaitza

Ekosistemak:

- Enpresa eta mikroenpresen kopuru handi eta askotarikoa dute ezaugarritzat KSlek. Nola batu ditzakegu enpresa horien guztien ahotsak eta interesak?
- Nola erantzuten diegu enpresa txiki, mikro eta handien premiei?
- Kultura- eta sormen-industriak modu holistikotan kontuan hartzea, berrikuntza-ekosistema baten testuinguruan, baita KSlen sektore espezifikoak ere, hala nola musika, zinema eta bideojokoak.

8. taldea

Egungo egoeraren azterketa

Alderdi positiboak:

- Lankidetzaren potentziala.
- Segurtasuna zifretan.
- Beste sektore batzuk ezagutzeko eta haiekin kolaboratzeko interesa.
- Gazteak prestatuta eta gaituta daude.
- Konturatu gara egokitu egin behar garela egunean jartzeko eta lehiakorrak izaten jarraitzeko.
- Partekatutako arriskuak berrikuntza eta ekintzailtza sustatzen ditu.
- Teknologia berrien erabilerak lankidetzaren errazten du.
- Berrikuntza-esparru mugagabeak.
- Teknologia eskuragarriagoa bihurtu da denontzat.
- Hornidura-kateak.
- Lankidetzaren eta baliabideen partekatzea erakundearen artean.
- Funtzionarioen bilketa.
- Ekosistema erregionalek ongi funtzionatu dute.
- Zirkulartasuna ezartzeko herri-joerak.

Alderdi negatiboak:

- Desparekotasunak.
- Kolaborazio gurutzatuaren beldurra kultura-sektore tradizional batzuetan.
- Mesfidantza-sentimendu bat.
- Lege-hutsunea sormen-erabileraren aldean.
- «Beti horrela izan denaren» sindromea.
- Kultura-praktika batzuen arteko siloak.

- Arrakalak sortzea.
- Toki-politika (mugaketak).
- Zaila da teknologia industrial berrien eta entretenimenduaren arteko zubiak egitea.
- Berrikuntza-esparru mugagabeak.
- Lehia eta kolaborazioa aurrez aurre.
- Nola integratu daitezke talentu gazteak?
- Iturri mugatuak KSletarako.
- Ulerkuntza politikorik eza (mugatua).
- Hazkundera
- Semantika desberdina (KSlekin).
- Ezagutzarik eza.

Etorkizunerako proposamenak

Proposamen guztiak:

- KSlen artean laborategiak/ekipoak partekatzea.
- Komunitate-sentimendu bat sortzea (partekatzea).
- Kolaborazio-lana partekatzea eta sustatzea.
- KSletarako tailerrak. Noranzko biko ezagutza.
- «Arazo gaiztoetan» eta tokiko erronketan lan egitea.
- Hezkuntzaren eta KSlen arteko lotura.
- Mikrofinantzaketa-ereduak.

Proposamen NAGUSIAK

- 1. Eraikin komunitarioa:**
 - a. EBaz haratago, globaletik tokikora.
 - b. Laborategiak eta iturriak partekatzea KSlen artean.
 - c. Behatoki bat sortzea.
 - d. Lankidetzak-ereduak. Kolaborazioak.
- 2. Tokiko erronkak: Hezkuntza eta KSlak lotzea**
- 3. Mikrofinantzaketa-ereduak:**
 - a. Arrisku-mikrokapitaleko funts bat
 - b. Hasierako finantzaketa
 - c. Hazkundera
 - d. «Evergreen» funtsak

9. taldea

Egungo egoeraren azterketa

Alderdi positiboak:

- Jarrera positiboa. Haiei entzun, haiei galdetu.
- Elkarketak. Konexio-zentroak.
- Inpaktu soziala. Enpresa-gogamena.

Alderdi negatiboak:

- Eskalagarritasuna.
- Zeharkako mikroagenteak (isolatuak).
- Zaila da kointzidentzia bat aurkitzea.
- Erakundeek ez dute identitate-zentzurik.
- Inpaktu soziala. Enpresa-gogamena.

Etorkizunerako proposamenak

Proposamen guztiak:

- Finantzaketa paralelorako laguntzak (enpresa txiki eta handientzat)
- ETEen arteko kolaborazioak.
- Mikroenpresen eta langile autonomoen hedapena sustatzea mundu-merkatuan posizio lehiakorago bat lortzeko.
- Erakundeen arteko topaketak erraztea elkarrekin hazi eta aukera gehiago izan ditzaten (finantzaketa, programak, eta abar).
- Nazioarteko kolaborazioak: Kluster edo erakunde eraginkor bat garatzea elkarrekintza eta aberastea errazteko Euskadi barruan eta Euskaditik kanpo.
- Eremu guztiak biltzeko bitarteko gisa baliagarriak izango diren klusterrak sustatzea KSlen barruan eta haien artean.
- Elkar aberastea
- Besteei entzutea. Konexio-zentroak, topaketa-puntuak.
- Zenbait kontzeptu eta berrikuntza-esparru barnean hartuko dizuten berrikuntza-poloak sortzea. KSlen konexio-zentroak bilduko dituen konexio-zentro bat.
- Ekosistema indartzea.
- Ongi sozialerako inkubagailuak.
- Interes sozialeko proiektuak merkaturatzera bideratutako programak.
- Sortzaileentzako enpresa-tutoretza.
- Mailakatutako dirulaguntzen sistemak: Ikerketa eta garapena, prototipoa, produktua/artisautza, salmenta/banaketa.
- Txostenak eta inkestak (politika).
- Herritarren parte-hartzea politiken elaborazioan.
- Foro espezifikoa diseinatzea eta ezartzea erakunde publiko eta pribatuen arteko kolaborazioa errazteko. Publikoa eta industria.

Proposamen NAGUSIAK

1. **Kolaborazioak ETEekin:** Makroerakundeen eta mikroerakundeen arteko konexioa errazten duten programak. Finantzaketa-zuzkidura enpresa txiki eta ertainei erakunde handiekin batera. Horrela, ETEek balio-ekarpena egiten diete erakunde handiei eta alderantziz.
2. **Nazioarteko kolaborazioak:** Finantzaketa-plan askorekin gertatzen den bezala, tokiko-esparruan zentratzen dira soilik, eta erronka bat izaten da hori. Dena den, oso garrantzitsua da hori, batez ere Euskadi bezalako lurraldeentzat, non enpresek korrespondentziak ezarri behar dituzten eta nazioartean aitortuak izan behar diren. Bururatu zitzaigun soluzioa zera izan zen, erronka global espezifikoen inguruko aldebiko finantzaketa; elkarrekin lan egiten duten enpresa txikiagoen eta handiagoen multzoak dira.

3. **Konexio-zentroak:** Sektore arteko elkarrizketak sortu nahi ditugu ekimen honen bidez. Foro fisiko nagusi bat zenbait motatako ekipoak (hala nola errealitate birtualeko teknologia) barnean hartuta, eta beharbada grabaketa-estudio bat jendeak sortu dezala baliabide bat izan dadin, baita pertsona horiek bilduko dituzten ekintzetarako ere.
 - a. Berrikuntza kreatibo eta komertzialeko zentroak.
 - b. Ekipo berriarekin eta softwarearekin ekipatuak.
 - c. Sektore arteko aldaketa sustatzea.



6. 2. ATaren 3 ideia nagusiak.

1. **Jasangarritasuna:**
 - a. Ekonomikoki jasangarria izango den artistentzako negozio-eredu bat.
 - b. Sormenaren eta teknologiaren erabilerari esker ingurumenaren ikuspuntutik jasangarria den etorkizun bat. Berrikuntzaren helburua ezin da jada hazkundera soilik izan.
2. **Teknologiaren eta sormenaren indarra:** Pertsonak gaitzea eta demokrazia sustatzea. Prestakuntza eta laguntza ematea talde eta komunitate kalteberei (gutxiengo etnikoak, desgaitasuna duten pertsonak, eta abar).
3. **Zeharkako berrikuntza:** Diziplinartekotasuna, gainerakoetatik ikastea eta kolaborazio/berrikuntza erakundearen mugez haratago (egiaz).



2. AT: Berrikuntza KSlekin eta haien barruan



KSlek funtsezko rola dute beste sektore batzuen berrikuntza-prozesuetan eta gizartearenean oro har.